



EUSKADI

LOCAL2030HUB

A community in action



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



EUSKADI
LOCAL2030HUB
A community in action

BALIO-PROPOSAMENA

EUSKADI LOCAL2030 HUB: KOMUNITATEA MARTXAN

Agenda globalak eraldaketa zehatz bihurtzen diren lekua. Erronkak identifikatzen ditugu, konponbideak esperimentatzen ditugu eta gure garaiko gizarte-eraldaketak bizkortzen dituzten ekimenak eskalatzen ditugu.

NAZIOARTEKO AITORTZA

Euskadi Nazio Batuek garapen jasangarrian aitzindari gisa aitortutako munduko zortzi lurralde subestataletako bat da. Hub hau konpromisoan, ikuspegian eta lankidetzan oinarritutako ibilbide kolektibo baten emaitza da, eta nazioartean baliozkotzen du denboran zehar sendotu dugun eredu bat: ongizatera, ekitatera eta oparotasun partekatura bideratutako maila anitzeko eta eragile anitzeko gobernantza.

GILTZARRI INSTITUZIONAL ETA SOZIALA

Euskadi Local2030 Hub gaitasunak, baliabideak eta borondateak konektatzeko sortu da, gobernuen, enpresen, akademiaren eta gizartearen ekintza lerrokatzen dituen bisagra instituzional eta sozial gisa, eragina biderkatzeko.

Euskadi Local2030 Hubek etorkizunari buruzko begirada propioa adierazten du: jasangarria, demokratikoa eta plurala.



EUSKADI
LOCAL2030HUB
A community in action

BALIO-PROPOSAMENA

«JASANGARRITASUNA EDUKIA DA, ETA DEMOKRAZIA BALDINTZA»

Euskadi Local2030 Hub lankidetza-azpiegitura bat da, lurraldeak gure garaiko erronka handiei aurre egiteko duen gaitasuna indartzeko sortua, erakundeen, antolakundeen eta herritarren arteko lankidetzatik abiatuta.

Bere eginkizuna Euskadiko kapital kolektiboa antolatzea eta aktibatzea da, garapen jasangarriaren inguruan elkarrekin lan egiteko modu egituratuagoa, egonkorragoa eta eraginkorragoa ahalbidetuz.

GOBERNANTZAREN SISTEMA ERAGILEA

Hubak gobernantza kolaboratiboaren sistema eragile gisa jarduten du, gobernu-mailen artean eta eragile publiko, pribatu, akademiko eta sozialen artean lankidetza bideratzeko behar den arkitektura eskainiz. Egitura horren bidez, Hubak gaitasunak lerrokatzea, ekimenak koordinatzea eta proiektu partekatuak bultzatzea ahalbidetzen du, ikuspegi estrategikoa ekintza zehatz bihurtuz.

NAZIO BATUEN AITORTZA

Euskadi Local2030 Hubek esperientzia hori nazioarteko eremuarekin konektatzen du. Euskadi Nazio Batuen Local2030 Koalizioak Agenda 2030aren lokalizaziorako Hub bat hartzen duen lurraldeetako bat gisa aitortu du; bereizketa hori munduan oso lurralde gutxik partekatzen dute.

FUNTZIO ESTRATEGIKO BIKOITZA

Hubak, beraz, funtzio estrategiko bikoitza betetzen du:

- Lurralde barruko lankidetza artikulatzea.
- hori garapen jasangarriarekin konprometitutako sare global batean proiektatzea.



EUSKADI
LOCAL2030HUB
A community in action

BALIO-PROPOSAMENA

ALDAKETA GARAIA, KOMUNITATETIK EMANDAKO ERANTZUNA

Gaur egungo demokraziak inflexio-une batean daude. Ezegonkortasun geopolitikoa, multilateralismoaren ahultzea, eraldaketa teknologikoen eta klimatikoen azelerazioa, eta, horiekin batera, polarizazio-, desinformazio- eta erakundeekiko konfiantza-galera prozesuak bizikidetzaren demokratikoaren oinarriak tentsionatzen ari dira. Europako gizarte-ereduak ere, lankidetzaren eta ongizate partekatuen gainean eraikiak, hamarkadetan eutsi dioten adostasunetako batzuk proban jartzen dituzten erronkei egin behar die aurre.

EUSKADIREN ERANTZUNA

Egoera horren aurrean, Euskadik erantzun argia planteatzen du: komunitatea indartzea, ekintza publikoaren eta etorkizuneko proiektu kolektiboaren oinarri gisa. Erabaki horren oinarrian dago erakundeen arteko lankidetzaren, gizarte-partaidetzaren eta administrazioen, enpresen, akademiaren eta gizarte zibilaren arteko lan partekatuen ibilbide sendo bat.

Euskadi Local2030 Hub ibilbide horren bilakaera naturala da: kapital kolektibo hori antolatzeke eta ekintza eraldatzailerara bideratzeko aukera ematen duen lankidetzazpiegitura.

«Komunitatea aktibatzen denean, demokraziak aurrera egiteko energia aurkitzen du»



EUSKADI
LOCAL2030HUB
A community in action

BALIO-PROPOSAMENA

Gure oinarriak: komunitate gehiago, demokrazia gehiago, lankidetzak gehiago

Gizarte-eraldaketek denboran iraun ahal izateko, demokrazia sendo, parte-hartzaile eta kooperatibo batean oinarritu behar dute, eta hori lau plano osagarriren bidez artikulatzen da. Euskadi Local2030 Hubek plano horiek konektatu eta aktibatzen ditu, lurraldearen eraldaketa gidatzen duen ekintza kolektiboa bizkortzeko.

KALITATE INSTITUZIONALA

Erakunde publikoen indartzea, gardentasuna eta kontu-ematea.

KOMUNITATEA

Gizarte-loturak, pertenezia-sentimendua eta erantzukizun partekatua indartzea.

KULTURA ZIBIKOA

Bizikidetzak demokratikoa sostengatzen duten eta herritarrei auzi kolektiboetan modu aktiboan inplikatzeko aukera ematen dieten balioak, jarrerak eta praktikak

LANKIDETZA

Erakundeen, antolakundeen eta herritarren arteko lankidetzak artikulatzen du, erronka handiei elkarrekin heltzeko.



EUSKADI
LOCAL2030HUB
A community in action

BALIO-PROPOSAMENA

FOROTIK HUBERA: LANKIDETZATIK EKINTZAREN ARKITEKTURARA

Euskadi Local2030 Hubek aurrerapauso bat adierazten du lurraldeak urteetan zehar lankidetza instituzionalaren, jasangarritasunaren eta gizarte-berrikuntzaren inguruan eraiki duen ibilbide kolektiboan.

FOROA

Topaketa, hausnarketa eta elkarrizketa.

IKUSPEGI PARTEKATUA

Helburuen eraikuntza kolektiboa.

EKINTZA BATERATUA

Koordinazioa eta proiektu operatiboak.

HUB

Dimentsio operatiboa eta nazioarteko koordinazioa.



EUSKADI
LOCAL2030HUB
A community in action

BALIO-PROPOSAMENA

FOROTIK HUBERA: LANKIDETZATIK EKINTZAREN ARKITEKTURARA

Ibilbide horretan, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Foroak aurrerapauso esanguratsua ekarri zuen, lurraldeko eragile ezberdinen arteko topaketa, hausnarketa eta elkarriketarako espazio egonkor bat eskainiz. Foroari esker ikuspegi partekatu bat eraiki bazen, Euskadi Local2030 Hubek oinarri hori indartu eta dimentsio operatiboago baterantz proiektatzen du, ekintza bateratura, ekimenen koordinaziora eta nazioarteko dinamikei loturara bideratuta.

AGENDA 2030 KOMUNITATE-ITUN GISA

Agenda 2030 komunitate-itun gisa ulertzen da: gaitasunak lerrokatzeko eta ekintza kolektiboa jasangarritasunaren, gizarte-kohesioaren eta oparotasun partekatuaren horizonte baterantz orientatzeko aukera ematen duen hizkuntza komun gisa.

ESPERIMENTAZIO-LABORATEGIAK

Bere esperimentazio-laboretegien bidez, Hubak espazio bat eskaintzen du, non erakundeek, enpresek, akademiak eta gizarte zibilak elkarrekin proiektu pilotuak garatu, konponbide berritzaileak aztertu eta ekimen eraldatzaileak eskalatu ditzaketen.



EUSKADI
LOCAL2030 HUB
A community in action

BALIO-PROPOSAMENA

EUSKADI LOCAL2030 HUBEN EKINTZA-LEHENTASUNAK

Euskadi Local2030 Hubek misio eta proiektu partekatuak aktibatzekeo plataforma gisa jarduten du, estrategien kokreazioa, proiektu pilotuen garapena eta politika publikoen, enpresa-berrikuntzaren, ezagutza akademikoaren eta konpromiso sozialaren arteko koordinazioa erraztuz. Bere esperimentazio-laboregien bidez, eragile ezberdinek ekimenak ekarri, konponbideak aztertu eta lurraldean benetako eragina izango duten erantzun kolektiboak garatu ditzakete.

Bere lana lau jarduketa-ardatzen inguruan artikulatzen da, nazioarteko proiektzioaren zeharkako dimentsio batez lagunduta.

HERRITARTASUN AKTIBOA

Gizarteak etorkizun kolektiboaren eraikuntzan duen inplikazioari forma emateko. Gizarte-erlaketarako hezkuntza sustatzera, kultura demokratikoa indartzera, herritarren parte-hartzea bultzatzera eta bereziki gazterien papera aktibatze bideratutako ekimenak barne hartzen ditu.

MISIO PARTEKATUAK

Lurraldeko erronka zehatzen inguruan eragile ezberdinak mobilizatzen dituzten ekimen kolektiboak. Hubaren bidez proiektuen kokreazioa, bide-orriak egitea eta epe luzeko estrategien garapena sustatzen dira.

BERRIKUNTZARAKO ANTOLAKUNDEAK

Hubak lankidetzak-espazioak errazten ditu, Agenda 2030 enpresen, unibertsitateen, zentro teknologikoen, administrazio publikoen eta gizarte-erakundeentz antolaketak-estategietan integratzeko, eredu jasangarriagoetarako trantsizioan.

KAPITAL JASANGARRIAREN TRAKZIOA

Kapital publiko eta pribatua, proiektu eraldatzaileei laguntzera eta lurraldearen epe luzeko garapen-estategietan konfiantza indartzera bideratua.



EUSKADI
LOCAL2030 HUB
A community in action

BALIO-PROPOSAMENA

LANKIDETZA GOBERNATZEA

Euskadi Local2030 Hub lankidetza-eredu batean oinarritzen da, eragileen ekosistema zabal bat eta ekintza kolektiboa errazteko diseinatutako gobernantza-arkitektura bat uztartzen dituen.

Hubak 120 erakunde baino gehiago biltzen ditu — erakunde publikoak, enpresak, unibertsitateak, ezagutza-zentroak eta gizarte zibileko erakundeak—, garapen jasangarriaren erronketan aurrera egiteko esperientzia, baliabideak eta konpromisoa ekartzen dituztenak.

Lankidetza hori antolatzeko, Hubak parte-hartzea artikulatu eta ekintza bateratua orientatzen duen gobernantza-egitura bat du:

OSOKO BILKURA

Lehendakaria buru dela, ildo estrategikoak definitzen ditu.

GOBERNANTZA BATZORDEA

Ekimenen koordinazioaz eta jarraipenaz arduratzen da.

IDAZKARITZA TEKNIKOAK

Funtzionamendu operatiboa eta Nazio Batuen Local2030 Koalizioarekiko lotura bultzatzen ditu.

Egitura instituzional horrekin batera, Hubak esperimentazio-laborategiak aktibatzen ditu, non eragile ezberdinek proiektu pilotuak bultzatu, ezagutza partekatu eta konponbide berritzaileak garatu ditzaketen.

Ekosistema hori, gainera, Euskadiko GJHen aldeko Aliantzarekin konektatzen da, gizarte-partaidetza zabalduz eta lurralde osoaren inplikazioa indartuz.

Horrela, Euskadi Local2030 Hubek komunitatea eta gobernantza uztartzen ditu, lankidetza eragin duen ekintza koordinatu bihurtzeko.



EUSKADI
LOCAL2030HUB

A community in action

DEKALOGOA

EUSKADI LOCAL2030 HUB:
EUSKAL KOMUNITATE DEMOKRATIKOA INDARTZEKO ARKITEKTURA

1. «ZIURGABETASUNAREN AURREAN, EUSKADI EZ DA ATZERA EGITEN: BERRANTOLATU EGITEN DA»

Polarizazioak, desinformazioak eta ezegonkortasunak markatutako mundu honetan, lankidetzaren demokratikoa indartzea da etorkizuna babesteko modurik onena. Gobernantza kolaboratiboa kultura demokratikoaren adierazpen garaikidea da.

2. «DEMOKRAZIA ETA KOMUNITATEA DIRA GURE ETORKIZUNERAKO POLITIKARIK ONENA»

Herritarren, erakundearen eta gizarte-eragileen arteko loturak sendotzea da gure garaiko arrakalen aurkako antidotorik sendoen.

3. «DEMOKRAZIA LANKIDETZA ANTOLATUZ ERAIKITZEN DA»

Gobernantza kolaboratiboak, gizarte-berrikuntzako laborategiek eta erakunde-gardentasunak osatzen dute garapen jasangarriaren euskal ereduaren oinarria.

4. «EZ DAGO JASANGARRITASUNIK EUTSIKO DION DEMOKRAZIARIK GABE»

Jasangarritasuna, lehiakortasuna edo berrikuntza benetan sustraitzen dira balio partekatuen, pertenezaren eta erantzunkidetasunaren oinarri komun bat dagoenean. Hubak erakundearen eta gizartearen arteko lankidetzaren antolatzen du balio demokratikoak eraldaketa-proiektu errealei bultzatzeko.

5. EUSKADI LOCAL2030 HUB: LANKIDETZA, BERRIKUNTZA, KOMUNITATEA.

Euskadi Local2030 Hub lan partekaturako azpiegitura bat da, non erakundeek, enpresek, unibertsitateek eta gizarte zibilak elkarlanean jarduten duten garapen jasangarriaren erronkei erantzuteko irtenbideak bultzatzeko. Agenda 2030 komunitate-ituna da, balio demokratikoak, belaunaldiaren arteko erantzunkidetasuna eta eragile anitzeko lankidetzaren artikulatzen dituen.



EUSKADI
LOCAL2030HUB

A community in action

DEKALOGOA

EUSKADI LOCAL2030 HUB:
EUSKAL KOMUNITATE DEMOKRATIKOA INDARTZEKO ARKITEKTURA

6. «TOKIKOAK ERE GIDATU DEZAKE ALDAKETA GLOBALA»

Munduan estatu ez diren zortzi lurraldek baino ez dute Local2030 Hub bat. Nazio Batuen Euskadiren izendapenak gure ekosistemaren sendotasuna aitortzen du eta garapen jasangarriaren erronka globaletara tokiko irtenbideak emateko dugun gaitasuna balioztatzen du.

7. «ORAIN DA LANKIDETZA AKTIBATZEKO UNEA»

Forotik Hubera igarotzeak etapa berri bat irekitzen du: gaitasunak aktibatzeke, proiektu kolaboratiboak bultzatzeko eta konpromisoa emaitza bihurtzeko diseinatutako espazioa.

8. «ELKARLANEAN ERALDATZEKO»

Hubak misio partekatuak, berrikuntza-laboretegiak eta proiektu kolaboratiboak sustatuko ditu erronka sozial, ekonomiko eta ingurumeneko handiei erantzuteko.

9. «HUBA AZPIEGITURA DA; KOMUNITATEAK BETE BEHAR DU EDUKIZ»

Erakundeek, enpresek, unibertsitateek eta gizarte zibilak beren proiektuak, erronkak eta ekimenak ekartzera deituta daude hemen irtenbide partekatuak eraikitzeke.

10. «KOMUNITATEA MARTXAN JARTZEN DENEAN, DEMOKRAZIA AURRERA DOA»

Hori da Euskadi Local2030 Huben zentzua: lankidetzak ekintza bihurtzea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO